

ANAYAK! AGUR!

« ANAYAK » ! izen eder, samurra
samurrik ba'da ludian
izen gozoa ta... bai samiña
bizi garan erbestean.

« ANAYAK »... baña, laño baltz-baltza
datorkit une onetan.
erailtze anker, espetxe gogor,
neke-samiñaz gomutan.

France, Belgique, eta England'en,
Amerika urriñetan,
sakabanaurrik, biotz-urratuz,
ogi mingotza txastean !...

Biotza zabal, eusko lau antzez
« ANAYAK » ! Agur danori » !
dantzut, ta neuk be biotz-biotzez :
« ANAYAK » Ondo etorri » !...

Zoritzar ontan « birritan » Anai
benetan garan ezkero,
Anaitasun-gar poz-bizigarri
ez dogu zainduko bero ?.

Anai-maitasun goitar legea
deika daukogu aspaldi :
« Zoritzarpean dagon anayaz
on-maitakor izan adi ».

Ordu onez ba zatoz « ANAYAK »
argi maitasun geznari,
anaitasun au sendotuteko
maitasunezko lokarri,

GABIREL.

London 1-1939'n.

Manterola